

Abantaila berriak eskuratzeko modua ematen die bazkide-bezeroei

**EROSKI-K PAUSO BAT EMAN DU BERE
ERALDAKETA DIGITALEAN, ETA
FUNTZIONALITATE BERRIAK SARTU DITU BERE
APLIKAZIOAN**

- Eskaner bat dakar modua ematen duena sasoian sasoiko elikagaiak eta horiekin egindako bideoerrezetek nutrizio aldetik duten balioa ezagutzeko
- EROSKIren aplikazioak kontsumitzaileen esperientzia hobetzen du informazioa, formazioa eta aurrezpena tresna bakarrean eskura jarrita
- Orain hogeitun urte lehen pausoak eman zituen Eroski Online atera zuenean, eta 2020an Espainiako *on line* supermerkatuak onenaren saria irabazi zuen laugarrenez

Elorrio, 2020ko urriaren 22a.- [EROSKI](#)k eraldaketa digitalaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, kontsumitzaileari formazioa, informazioa eta aurrezpena emateko. Kasu honetan, EROSKI Club aplikazioa berritu du, eta orain lehen baino esperientzia eta sarbide hobeak eskaintzen ditu bere zerbitzu eta abantaila guztietara; izan ere, kontsumitzailearen formaziorako eta informaziorako funtzionaltasun berriak dakartza. EROSKIk aurrera egin du guztitarako kanalen proposamenean, eta kontsumitzaileek beren premiak beteta ikus ditzakete kanal eta formatu guztietan.

Aplikazio berriak eskaner bat dakar modua ematen duena nutrizio arloko datuak eta osagaiak eskuratzeko eta beste bezero batzuek produktuaz emandako iritziak irakurtzeko, barra-kodearen bitartez. Erabiltzaileen eskura bideoerrezetak jarri ditu sasoian sasoiko produktuekin, eta erraztasunak ematen ditu dirua aurrezteko; gainera, funtzionaltasun berriak ditu, deskontu txartelak aktiba daitezkeelako eta eskuorriak eta eskaintzak ikusi.

Aplikazio berriaren bitartez, EROSKIk pauso bat eman du ingurune digitalera egokitzeko bere balioak, joan deneko 50 urtean kontsumitzaile kooperatiba gisa eratu zenetik sustatzen dituenak.

"Gure gogoia da bezeroak eskura izatea EROSKI osoa. Teknologia berriak direla medio, kontsumitzaileak lehen baino gehiago eskatzen du, eta erantzun omnikanal bat eta arreta pertsonalizatua espero ditu. Joan den urtean %33,74 igo zen gure

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

aplikazioaren deskarga kopurua", azaldu du EROSKIren Marketin arloko zuzendariak, Eva Ugartek.

Aplikazio berrituaren nahiz [webgunearen](#) bitartez, kontsumitzaileek eskura dute EROSKIren on line supermerkatua bere gailuetan. Kanal hori indartu egin da COVID-19ak eragin duen osasun krisiarekin; izan ere, horrek aldaketa argia ekarri du bezeroen ohitura digitaletan; alternatiba gehiago bilatzen ditu orain erosketa errazago eta lasterrago egiteko, eta alde horretatik, nabarmentzekoak dira on line erosketak ez ezik *Click and Drive* eta *Click and Collect* zerbitzuak.

EROSKIk *on line* eskariak bezeroei helarazteko lau modalitate ditu: ohikoa, hau da, etxera eramatearena, zeina bakarra baita zerbitzua ematen duena Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Balearretako lurralde osoan eta gainera hiriburuetan egunean bertan eramateko zerbitzua ematen du; dendetako bilguneen sarea, autoz nahiz oinez jasotzeko, eta armairutxo adimendunak, aurrenekoz Arrasateko hipermerkatuan instalatuak.

On line supermerkatuak onenaren saria laugarrenez jarraian

Orain hogeitaz jarri zen martxan EROSKI Online, eta kooperatiba aitzindaria izan zen 2000. urtean elikagaien arloan on line negozioa ipintzen; hala, kontsumo ohiturak kanal berrietara aldatzen ari diren testuinguru honetan, orain berriki, EROSKIren Interneteko denda hautatu dute kontsumitzaileek laugarren urtez jarraian Espainiako on line supermerkatuak onena. Urteko WebShop saria jaso zuen on line supermerkatuen kategorian, kontsumitzaileek botoa emanda supermerkatuaren asebetetze eta balorazio aldetik. Espainian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta *retail*aren saileko merkatu azterketarik handienetako bat egiten du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)